

## Eta zuretzat, zer da zure etxea?



*“Eraikinak adreiluz egiten dira; norberaren etxea, momentuz. Bakoitzaren etxeak izen-abizenak ditu, eta txokoz, istorioz, ideiaz, maniaz eta oroitzapenez beteta dago”.*

*“Iluntzen duenerako lekua da. Lurrean dugun zeru-zatitxo bat”.*

*“Uste nuen bat hazten zen lekua zela etxea, baina orain argi eta garbi daukat eroso eta zoriontsu egiten gaituzten leku guztiak direla etxea”.*

Zure etxea aseguratzen duzuen dozena erdi arrazoi eman nahi nizkizun, baina uste dut Googlen aurkitu ditudan Rafael, Butterfly edo Pitiren erantzun horiek nire azalpenak baino konbentzigarriagoak direla.

### Zergatik etxea aseguratu?

**Lehenik eta behin, lasai egoteko.** Eguraldi txarrari aurpegi ona dio esatera batek, eta zentzu guztia dauka. **Etxeko aseguru on batekin ezbehar ia guztiak konpon daitezke,** telefonoa hartuta. “Dena barne” horietako bat bihur liteke, polizaren estaldurak zure behar eta zirkunstantzietara egokitzen badituzu;

aitortu dituzun gauzen kalteak edota sute kasuan etxebizitza berreraikitzeke lanak estal ditzake. Hausturak, etxe barruko zein kanpoko lapurretak, zure seme-alabek edo maskotek besteri eragin diezazkieketen kalteak, sarrailak, kalte estetikoak, altzarrietako kalteak... baita etxearekin lotutako lege-arazoen defentsa juridikoa ere.

Dena galtzea ekar dezaketen ezbehar larriak dira benetako drama, ordea: etxea, arropa, liburuak, oroitzapenak... eta orain, zer? Etxea edukitzeko ametsa egia bihurtzeko ahalegin guztiak egin eta gero, merezi du horrenbeste kostatu zaizun hori babestea.

Gogoan izan: **Espainiako 3 herritarretik batek** etxeko aseguru erabili zuen iaz, eta **mila hirurehun eta hamabost milioi euroko** (1.315.000.000 euro) **kostua** suposatu du horrek **konponketa eta berreraikitzeetan**.

Kaltetutako ondasunen balioa berreskuratzea eta **gertakari judicial batek zure bizi-kalitatea aldatuko ez duen** lasaitasuna dira aseguru on baten abantailak.

## Aseguruari buruz ez dakizkizun datuak

Ba al zenekien aseguruak 19 milioi euro baino gehiago ordaintzen dituztela, egunero, zergetan? Eta Estatuak urtebetez mantendu litzakeela 560.000 pentsiodun, ekarpen horiei esker?

**Aseguruaren 2017ko Memoria Sozialaren arabera,** “hauxe da aseguru-sektorearen jarduerak Estatuarentzat suposatzen duen diru-sarrera iturria ondoen definitzen duen hitza: **egonkortasuna**”. Azken urtean, 7.087 milioi euroko ekarpena egin du herrialdearen kontuetan.

Enplegu zuzenen estatistikak bitartekarien estimazioekin batzen baditugu, 120.000 pertsonak hartzen dute parte aseguruaren sektorean. **Hala, enplegua sortzen du sektoreak, eta 1.200 milioi eurotik gorako ekarpena egiten dio diru-kutxa publikoari,** enpleguarekin lotutako atxikipenengatik: Gizarte Segurantza, lan-etekinak, ekonomia jardueren atxikipenak eta erreikuspun-produktuen atxikipenak. Hala, ekarpen handia egiten diete guztion baliabideei. **Sektore segurua aseguruena!**



## Ez izan beldurrik, Juantxo 'zuhurra' naiz



Juantxo tipo zuhur, liskarzale, tranposo eta mozkorti bat zen. Deabruak ezin zuen sinetsi pertsona bat halakoa izan zitekeenik, eta konprobatzea erabaki zuen. Pertsonaz mozorrotu, eta hura ibiltzen zen tabernara joan zen. Bere bekatuengatik, bere bila joan zela esan zion. Juantxok azken desio bat eskatu zion, beste kopa bat edaten uzteko. Ordaintzeko unea iritsi zenean, ez bata eta ez besteak ez zuten dirurik. Naturaz gaindiko bere ahalmek erakusteko, txanpon bihurtzeko eskatu zion Juantxok. Luziferrek eskaria onartu zuen, baina besteak ez zuen ordaindu. Poltsikoan gorde zuen txanpona, gurutze baten ondoan. Urtebeteko tregoa agindu zionean bakarrik irten ahal izan zuen deabruak handik.

365 egun geroago itzuli zen, eta Juantxok beste desio bat eskatu zion: zuhaitz baten puntatik sagar bat hartzeko, infernura jaitsi baino lehen jateko. Luzifer zuhaitzera igo zen, eta tranposo alanak gurutze bat jarri zuen berri ere sagarrondoaren enborrean. Orduan, hamar urteko bakea eskatu zuen, eta bere arima sekula ilunpeetara deitu ez zezatela ere bai.

Juantxo hamar urteak igaro baino lehen hil zen. Zerura igo zen, baina San Pedrok ez zion pasatzen utzi, bere bekatuengatik. Infernura jaitsi, eta bota egin zuten handik ere, arbi lehor ba-

ten barruan, linterna bat balitz bezala, sartu zituen txingarrekin. Juantxo *zuhurrari* Jack-o'-lantern (linternaduna) izena jarri zioten. Ondoren, arbia kalabaza bihurtu zen.

Jack etxez etxe hasi zen, akordioak proposatzen edo maldizioak botatzen. Hortik datoz "**truco edo tratu**" **tradizioa** eta etxeak kalabazekin argiztatzeko ohitura, urrun mantentzeko.

Irlandatik Ameriketako Estatu Batuetara eraman eta Hollywoodek zabaldutako kondaira bat da. Espainian, baina, lehenagokoa da ohitura hori, XVIII. mendekoa, uzta-sasoian amaiera ospatzeko eta espiritu gaitoak uxatzeko maskarak erabiltzen zituzten gure arbaso zeltek utzia.

Galizian, *meiga* edo sorginen inguruko tradizio ugari daude, oraindik, *izan badira eta*. Sorian, bizirik dirau, oraindik, *Arimen Errituak*, eta kantari aritzen dira pertsonak, gauean, po-tuetan, kalabazetan edo buztinezko edozein ontzitan babestutako kandelekin.

**Beste munduaren beldurrak gertakariei aurea hartzera eraman gaitu, gero arte!** esaten digutenean gure senideak gastu eta kezketatik libratuko dituen **heriotza-asegurua-ekin**.

Halloween zoriontsua izan!

### Gomendio

## Aseguru hau "bai edo bai" erabiliko duzu

Esan... Badakizu heriotza-aseguru batek zer estaltzen duen? Garbi duzu aukeren %100etan erabiltzen dela?

Poliza honek ehorzketa-gastuak estaltzen ditu. Baina ez da hori garrantzitsuenak; une zail horretan, zure pena gaintzeaz baino ez duzu arduratu behar, heriotza-aseguru bat administrazio-kudeaketez, heriotza-ziurtagiriaz, online testamentuaz, bizitza digitalaren amaieraz, familia-liburuaren bidez eta abarrez ardura baitaiteke.

Ikus dezakezun bezala, oso baliagarria da hemendik joaten denarentzat, baina are baliagarriagoa, oraindik, hemen geratzen denarentzat; garaiekin batera egin dute aurrera aseguru horiek, eta "betiko atsedena" emateaz ez ezik, hemendik joaten denak utzitako gauza asko kudeatzeaz ere ardura liteke.

\*Halakorik ez baduzu, kontsulta iezaguzu; eta horrelako aseguru bat baduzu, ekar iezaguzu, eta ikuskatu egingo dugu. Baietz gehiago eman, merkeago.



### Anekdotak

## Ehiztaria, harrapatuta

Aseguruak harrapatuta, kirol hori egiten duten 300.000 pertsonak behartuta baitaude Erantzukizun Zibileko aseguru bat kontratatzea, hirugarrenei eragin diezazkieten kalteengatik.

Berarekin dauden pertsonak (eraikitzailea, txakurzaina, Lagunak) ez dute zertan aseguraturata egon legez, baina komeni da.

Poliza honek aparteko beste estaldura batzuk ere izaten ditu: istripu pertsonalak (heriotzagatik kalte-ordainekin), baliabazintasun iraunkorra, osasun asistentzia, bidai-laguntza, armaren kalteak...

Ehiztaria bazara, ez konformatu gutxienekoarekin. Utz iezaguzu zure aseguru ikus-tan, eta irabazten aterako zara.

